

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Euskara ikasteko laguntzetarako deialdia, 2024-2025 ikasturtea

Zalduondoko Udalbatzak, 2025eko urtarrilaren 30ean egindako bilkura berezian, 2024-2025 ikasturtean euskara ikasteko laguntzen deialdia arautzen duten oinarriak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen Lege Orokorrak 9. artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, denek jakin dezaten eta interesdunek eskaerak aurkez ditzaten.

2024-2025 IKASTURTEAN EUSKARA IKASTEKO BEKA DEIALDIAREN OINARRIAK

LEHENENGOA.- Araudiaren xedea.

Euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, Zalduondoko herritarrek hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handiagoa izan dezaten, Zalduondoko Udalak euskararen ikaskuntza indartzea erabaki du.

Horretarako, euskara ikastaroak egiten dituztenei eman ohi dizkien dirulaguntzak ematen jarraituko du, eta haiek arautzeko oinarriak ezarriko ditu.

Halaber, udalak xede horretarako partida bat gordeko du urteko aurrekontuan.

BIGARRENA.- Aurrekontuko kreditua.

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2025eko aurrekontu orokorreko 335.227.991 partidaren aurrekontu kredituari egotziko zaizkio. Aurrekontu partida hori 1.000,00 euroz hornituta dago. Baldin dirulaguntza eskaera gehiago jasotzen bada dagoen partida baino, hainbanaketa aplikatuko zaie eskaera guztiei.

HIRUGARRENA.- Onuradunak eta betekizunak.

Laguntzen onuradun izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- Zalduondoko udalerrian errolatuta egotea, bai egindako ikastaroaren hasieran bai amaieran.
- Izena ematean 16 urte baino gehiago izatea.
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako ikastegi eta ikastaroren batean matrikulatuta egotea.
- Barnetegiren batean ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Edonola ere, ikastaroetarako baino ez da emango dirulaguntza. Ostatua eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.
- Hautatutako ikastaroa helduen euskalduntze edo alfabetatzeko curriculumaren maila baten parekoa izan behar da gutxienez.
- Gutxienez, eskola orduen ehuneko 80ra joan behar da, edo ikastaroa gainditu.
- Euskara ikasteko beste dirulaguntzaren bat (Merkataritza Ganbera, HABE...) jasotzeko aukera izanez gero, horiek eskatzea.
- Ikastaroa 2023ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era bitartean egina izatea.

LAUGARRENA: Laguntzen zenbatekoa:

- a) Langabezian egonez gero, matrikularen ehuneko 100 jasoko du eskatzaileak, araudian ezarrita dagoen gehieneko zenbatekoa baino handiagoa ez bada. Gehiago bada, ezarritako gehienezko zenbatekoa jasoko du.
- b) Gainerako kasuetan, matrikula osoaren ehuneko 50 ordainduko zaio, zenbatekoa araudian ezarrita dagoen gehieneko zenbatekoa baino gehiago ez bada. Handiagoa bada, ezarritako gehieneko zenbatekoa jasoko du.
- c) Dirulaguntzaren gehienezko kopurua: 600,00 euro.
- d) Eskatzaileak egindako ikastaroaren iraupenaren ehuneko 40 baino gehiago lan egiten ari badira, bekaren zenbatekoa ehuneko 50 izango da. Eskatzaileak egindako ikastaroaren iraupenaren ehuneko 40 baino gutxiago lan egiten ari badira, langabezian daudela joko da, eta matrikularen ehuneko 100a jasoko dute.
- e) Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, ikastaroa egin bitartean izan duten lanaldia ehuneko 40tik beherakoa bada (asteko 40 ordukoa), langabezian dagoela joko da, eta matrikula osoa jasoko dute. Lanaldia ehuneko 40tik gorakoa bada, matrikularen ehuneko 50 jasoko dute.
- f) Eskatzaileek beste erakunderen baten dirulaguntza jasotzen badute eta laguntza hori araudi honek xedatutakoa baino gutxiago bada, Zalduondoko Udalak ordainduko du aldea.

BOSGARRENA: Aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Eskaera orria.
- b) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.
- c) Ikastaroaren ezaugarriak (hasiera eta amaiera egunak, asistentziari buruzko datuak...) jasotzen dituen euskaltegiaren agiria.
- d) Matrikularen ordainagiria.
- e) Langabezian egonez gero, egoera horretan egon den aldia egiaztatzen duen agiria edo lan bizitzaren txostena.
- f) Beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa egiaztatzen duen agiria.

SEIGARRENA. Bateragarritasuna beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin.

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede horretarako bererako emandako beste batzuekin, betiere gastu handiagorik eragiten ez badute. Euskara ikasteko bestelako laguntza edo dirulaguntzak eskatzeko aukera izanez gero (Merkataritza Ganbera, HABE...), eskatu egin behar dira. Udalari jakinaraztea xede bererako zer beste dirulaguntza eskuratu diren. Beste laguntza batzuk jaso direla eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da jasotako gainerako laguntzekin matrikula kostuan geratu den defizita.

ZAZPIGARRENA: Eskaerak aurkeztea:

Eskaerak Zalduondoko Udalaren bulegoetan aurkeztu behar dira, bertan ematen den inprimakian, eskatzen diren agiriekin batera.

- a) Eskaerak urte bakoitzeko urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira eta aurreko ikasturteari buruzkoak izango dira.

ZORTZIGARRENA: Eskaerak aztertu eta ebaztea.

- a) Aurkeztutako eskaerak baldintzak betetzen dituzten ala ez aztertuko du udalak eta, gero, onartuen eta baztertuen zerrenda osatuko du, ebazpen bidez.

b) Baztertutako pertsonak aukera izango dute eskatutako agiriak osatzeko edo, egokitzen joz gero, dagokion errekurtsioa jartzeko, indarreko legediaren arabera.

c) Beste erakunde batzuen dirulaguntza jasotzen bada, dirulaguntza horren zenbatekoa egiaztatzen jarraipena egingo da.

BEDERATZIGARRENA.- Laguntza galtzea eta dirua itzultzeko prozedura.

Onuradunek laguntza osoa edo zati bat gal dezakete, aurrez espedientea irekita, kasu hauetan:

- Datuen bat faltsutzen badute eskaeran edota eskatutako agirietan.
- Laguntza ez badute erabiltzen hura ematen den xede eta jardueretarako.
- Ezarritako betebeharren bat betetzen ez badute.

HAMARGARRENA.- Errekurtsioak.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsioa, deialdi hau onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; organo horren esanbidezko ebazpen edo presuntziozkoaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsioa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena presuntziozkoa bada, sei hilabeteko epean, presuntziozko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

HAMAIKAGARRENA.- Beste xedapen batzuk.

Oinarri hauek interpretatzen zalantzarik sortzen bada, Zalduondoko Udalak ebatziko du. Hauek dira aplikatu beharreko oinarriko arauak: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak onesten baitu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia.

Zalduondo, 2025eko otsailaren 6a

Alkatea

LURDES LEKUONA LABURU